



PROJET EDUCATIF TERRITORIAL

Collectivité territoriale porteur du projet : Hendaye

Date de présentation du projet : 5 septembre 2018

Nom du correspondant : *M Kotte ECENARRO*

Fonction : Maire

Adresse : Hôtel de ville – Place de la République – 64 700 HENDAYE

Téléphone : 05 59 48 23 23

Adresse électronique :
mairie@hendaye.com

Périmètre et public du PEDT :

Territoire concerné : Commune d'Hendaye

Nombre d'enfants potentiellement concernés : 2946 enfants (dont 2078 établissements publics).

Ecoles maternelles : entre trois et cinq ans : 740

Ecoles élémentaires : 1358

Collèges : 848

Mode d'inscription aux activités proposées :

Accueils périscolaires :

La période de référence pour l'inscription aux accueils périscolaires est l'année scolaire, cependant, sa modification en cours d'année est possible.

Jours scolaires :

L'inscription se fait par écrit, en utilisant une fiche d'inscription. Ce document est fourni aux familles par le biais des enfants.

Plan mercredi :

L'inscription se fait sur demande des parents.

Une commission se réunit afin d'allouer les places. En cas de défaut de places, les critères de sélection seront essentiellement : la date d'arrivée du dossier et la situation familiale. En aucun cas l'activité professionnelle des parents en fera partie.

LURRALDEKO HEZIKETA PROIEKTUA

Proiektuaren gidari den lurralde

kolektibitatea: Hendaia

Proiektua aurkezteko data: 2018ko irailaren 5a

Arduradunaren izena: *Kotte ECENARRO jn.*

Funtzioa: Auzapez

Helbidea: Herriko Etxea – Errepublika plaza – 64 700 HENDAIA

Telefona: 05 59 48 23 23

Helbide elektronikoa:
mairie@hendaye.com

LHParen eremua eta publikoa:

Ukitzen duen lurraldea: Hendaia herria

Uki ditzakeen haurren kopurua: 2946 haur (horietarik 2078 ikastetxe publikoetan).

Ama eskolak: hiru eta bost urte artekoak: 740

Lehen mailako eskolak: 1358

Kolegioak: 848

Nola eman izena proposaturiko jardueretan:

Eskolaldi inguruko harrerak:

Eskolaldi inguruko harreretan izena emateko erreferentzia garaia ikasturtea da; halarik ere, urtean zehar alda daiteke.

Eskola egunak:

Idatziz eman behar da izena, izen-emate fitxa baten bidez. Dokumentu hori haurren bitartez ematen zaie familiei.

Asteazkenetako plana:

Izena ematea gurasoek eskaturik egiten da.

Lekuen esleitzeko batzorde bat bilduko da. Leku eskasia bada, hautatzeko irizpideak honako hauek izanen dira nagusiki: dosierraren eskuratze den eta familia egoera. Inolaz ere ez da kontuan hartuko gurasoen lan jarduera.

Accueils extrascolaires :

L'inscription se fera par écrit, en utilisant une fiche d'inscription. Ce document sera fourni aux familles lors de diverses permanences.

L'inscription sera annuelle ou ponctuelle :

- inscription pour une période de vacances scolaires
- inscription pour toutes les vacances scolaires

Ces activités sont payantes.

Modalités d'information des familles :

Les familles sont informées de plusieurs façons :

- Documents écrits
- Réunions faites avec les parents
- Discussions ponctuelles avec les parents

Nombre d'établissements d'enseignement scolaire concernés (publics et privés sous contrat) : 14

Eskolaz kanpoko harrerak:

Idatziz eman behar da izena, izen-emate fitxa baten bidez. Dokumentu hori harrera zenbaiten bitartez ematen zaie familiei. Izen ematea urte osorako edo noizbehinkakoa izanen da:

- Eskola oporraldi baterako izen ematea
- Eskola oporraldi guztietarako izen ematea

Jarduera horiek ordainduz dira.

Familiei informazioa emateko bideak:

Familiei hainbat bidetatik ematen zaie informazioa:

- Dokumentu idatzien bidez
- Gurasoekin egin bilkuretan
- Gurasoekin noizean behin mintzatzean

Ukituak diren ikastetxeen kopurua (publikoak eta kontratupeko pribatuak): 14

Etablissements Ikastetxeak	Publics Publikoak	Privés Pribatuak	Total Orotara
Ecoles maternelles Ama eskolak	5	2	7
Ecoles élémentaires Lehen mailako eskolak	5	2	7
Etablissements secondaires Bigarren mailako ikastetxeak	0	0	0

Liste d'établissements d'enseignement scolaire concernés :

Ecoles maternelles :

Etablissements publics : maternelles Plage, Ville, Gare, Joncaux et Lissardy
Etablissements privés : Saint Vincent et Ikastola

Ecoles élémentaires :

Etablissements publics : élémentaires Plage, Ville, Gare, Joncaux et Lissardy
Etablissements privés : Saint Vincent et Ikastola

Collèges :

Etablissement public : Collège Irandatz
Etablissement privé : Collège St Vincent

Ukituak diren ikastetxeen zerrenda:

Ama eskolak:

Ikastetxe publikoak: Hondatzako, Hiri-barneko, Geltokiko, Intzurako eta Lizardiko ama eskolak

Ikastetxe pribatuak: Saint Vincent eta Ikastola

Lehen mailako eskolak:

Ikastetxe publikoak: Hondatzako, Hiri-barneko, Geltokiko, Intzurako eta Lizardiko lehen mailako eskolak

Ikastetxe pribatuak: Saint Vincent eta Ikastola

Kolegioak:

Ikastetxe publikoa: Irandatz kolegioa
Ikastetxe pribatua: Saint Vincent kolegioa

Liste de structures proposant des activités périscolaires et/ou extrascolaires :

- Centre Social
Denentzat : accueil de loisirs Denentzat
- Association « Uda Leku » : accueil de loisirs Uda Leku
Hendaye
- Ville d'Hendaye :
accueils de loisirs de la Maison de la Petite Enfance, Txiki, Ancien Haizpean, Adolescents et Elémentaire Gare

Périodes de la journée et/ou de la semaine qui sont concernées par le PEDT :

Pour les périodes scolaires :

Dans les établissements publics, des temps d'animation auront toujours lieu pendant la pause méridienne, avant ou après le repas de l'enfant et lors des accueils du matin et du soir.

Le plan mercredi se déroulera dans les structures listées précédemment.

Pour les périodes de vacances scolaires :

Les accueils de loisirs ouvrent lors des vacances scolaires du lundi au samedi. Voulant donner au PEdT une réelle projection territoriale, les structures extrascolaires se sont réunies pour se coordonner autour des objectifs de notre PEdT.

Ensuite, lors du comité de pilotage du 21 février 2017, il a été annoncé aux autres partenaires le rattachement de ces structures à notre PEdT.

Notre PEDT concerne donc tous les jours ouvrables de la semaine et toute l'année.

Indiquer la date à laquelle les éventuelles dérogations à l'organisation scolaire ont été accordées : le 16 mai 2017.

Durée du PEDT (3 ans maximum) : 1 an renouvelable tacitement.

Eskolaldi inguruko edota eskolaz kanpoko jarduerak proposatzen dituzten egituren zerrenda:

- Denentzat Gizarte Zentroa:
Denentzat aisialdi zentroa
- «Uda Leku» elkarteak: Hendaiaiko Uda Leku aisialdi zentroa
- Hendaiaiko Herriko Etxea:
Hautzaroaren Etxea, Txiki, Lehenengo Haizpean, Nerabeak eta Geltokiko 1. mailako eskolako aisialdi zentroak

LHPren jardunak dituzten eguneko edota asteko aldiak:

Eskola garaietan:

Ikastetxe publikoetan, animazio aldiak izanen dira eguerdiko pausaldian, haurrek bazkaldu aitzin edo ondoren, bai eta goizeko eta arratseko harrera aldietan ere. Asteazkenetako plana aitzinetik zerrendatu egituretan egingen da.

Oporraldietan:

Aisialdi harrerak eskola oporraldietan dira zabalik, astelehenetik larunbatera.

LHPa lurraldeari begira egin nahian, eskolaz kanpoko egiturak bildu dira, LHParen helburuen inguruan koordinaturik aritzeko.

Gero, 2017ko otsailaren 21eko gidaritza batzordean, gainerako partaideei jakinarazi zaie egitura horiek gure LHPra lotzen zirela.

Honela, gure LHPak asteko lanegun guztiak hartzen ditu, urte osoan zehar.

Eskola antolaketari menturaz egingen litzaiokeen dispentsarako onartu den data: 2017ko maiatzaren 16an.

LHParen iraupena (3 urte gehienez): Urtebete, adierazi gabeen berriztagarri.

Activités périscolaires et extrascolaires déjà existantes et nombre d'enfants du territoire concernés par ces activités l'année précédant le renouvellement du PEDT :

Activités périscolaires : 2029 enfants inscrits.

Activités extrascolaires : 1983 enfants inscrits.

Besoins répertoriés (pour quel type de public) :

Les besoins répertoriés en questionnant les parents et enfants sont les suivants :

D'après les dernières consultations auprès des professionnels de l'éducation nationale et de certains parents, le besoin exprimé est celui du repos de l'enfant.

C'est pourquoi, nous attacherons une grande importance au fait que le mercredi soit pour l'enfant un temps de relâche dans la semaine. Evidemment, nous entendons par temps de relâche un moment où seront proposés aux enfants des temps de vie en groupe ou individuels, basés sur son plaisir, sans contrainte d'apprentissage.

Par ailleurs, comme pour tous les temps périscolaires et extrascolaires déjà proposés dans notre commune, nous continuerons à tenir compte de la courbe des rythmes journaliers des enfants.

Aussi, de façon à permettre la mise en place des repères, les structures pourront établir une « journée type ».

LHPa berritu aitzineko urtean jadanik zeuden eskolaldi inguruko eta eskolaz kanpoko jarduerak eta ukitu dituzten lurraldeko haurren kopurua:

Eskolaldi inguruko jarduerak: Izena eman duten haurrek: 2029.

Eskolaz kanpoko jarduerak: Izena eman duten haurrek: 1983.

Zerrendatu diren beharrak (nubliko mota Ernetasunaren eguneko erritmoa

Guraso nola haurrei galde egin eta honako behar hauek azaldu dituzte:


Hezkuntza Ministerioko profesionalei eta zenbait gurasori egin azken galdeketetan, haurraren atsedeen beharra azaldu zuten.

Horregatik, beraz, garrantzi handia emanen diogu asteazkena haurrari astean pausatzeko aldia gerta dakion. Noski, guretzat atsedena hori da haurrari, taldean edo bakarka, bizipen atsegingarriak eskaintzeko unea, ikasteko beharrik batere gabe.

Bestalde, gure herrian jadanik proposatuak izan diren eskolaldi inguruko edo eskolaz kanpoko aldi orotan bezala, jarraituko dugu, honetan ere, haurraren eguneko erritmoen kurba kontuan hartzen.

Beraz, erreferentziak plantan emateko aukera bideratzeko, egiturek «ereduzko egun» bat eman dezakete.

Le rythme circadien de la vigilance



Atouts du territoire et leviers pour la mise en œuvre du PEDT :

La mise en œuvre du PEDT s'est faite en permettant la participation de tous les acteurs du territoire. Cette concertation sera maintenue. Elle concernera : les parents, les enseignants, les animateurs, les ATSEM, les élus et bien sûr, les enfants et les jeunes.

Aussi, nous continuerons à mettre en valeur la richesse de notre territoire en travaillant avec les associations, les établissements culturels et nos sites naturels.

Fort de ses quatre ans d'expérience, le comité de pilotage réunira ses acteurs, sur la base du volontariat, avec le souhait d'aller de l'avant dans la mise en place d'une complémentarité et cohérence éducative des différents temps de l'enfant.

Cette expérience a apporté une meilleure connaissance des différents partenaires et de leur rôle dans l'éducation de l'enfant.

De même, la stabilité des équipes d'animation du mercredi, des pauses méridiennes et des accueils du matin et du soir est un atout incontestable à cette mise en place.

Contraintes du territoire et modalités de prise en compte de ces contraintes dans le PEDT :

Les principales contraintes restent les mêmes qu'en 2014, à savoir :

- le coût des salaires et des prestataires de services et le manque de locaux adaptés aux activités que nous souhaitons proposer.
- L'éloignement entre les structures de loisirs du plan mercredi et les écoles.

Objectifs éducatifs du PEDT partagés par les partenaires :

LHPa gauzatzeko lurraldeak dituen aukerak eta indarrak:

Lurraldeko Heziketa Proiektua lurraldeko eragile orori parte hartzeko bide emanez gauzatu da. Hitzartze horrekin jarraituko dugu. Honako hauek hartuko ditu adoste horrek: gurasoak, irakasleak, animatzaileak, ama eskoletako lurralde langile berezituak (ATSEM), hautetsiak, eta haurrak eta gazteak beraiek ere, noski. Horrez gain, gure lurraldearen aberastasuna baliatzen jarraituko dugu, elkarrekin, kultura erakundeekin eta gure natura guneekin lan eginez.

Lau urteko esperientzia ukanik, gidaritza batzordeak bere eragileak bilduko ditu, haien borondatearen arabera, haurrarentzat garai desberdinak elkarren osagarri eta heziketan koherente izateko xedean aurrera egin nahian.

Duen esperientzia horrek ekarri dio hobeki ezagutzea partaideak bai eta partaide horiek haurren heziketan duten egitekoa ere.

Gisa berean, asteazkenetako, eguerdiko pausaldietako eta goizeko eta arratseko harrera aldietako animatzaile taldeak egonkor izatea ezin ukatuzko abantaila da plantan emate horrentzat.

Lurraldeak dituen oztopoak eta LHPak oztopo horiek kontuan hartzeko moduak:

Oztopo nagusiak 2014koak berak ditugu orain ere, hau da:

- zerbitzu emaileen eta soldaten kostua eta proposatu nahi ditugun jardueretara egokitu lokalen eskasia.
- Asteazkenetako plana eskaintzen duten egituren eta eskolen arteko urruntasuna.

Partaideek partekatzen dituzten LHParen heziketa helburuak:

Les objectifs du PEDT ont été travaillés d'après ceux du CEL, du CEJ et du projet éducatif existants dans notre commune. Aussi, les groupes de travail mis en place (parents, enseignants, animateurs, associations et autres hendayais) se sont positionnés sur ces deux contrats et le projet éducatif afin de redéfinir des objectifs communs à tous. Par la suite, les Elus ont retravaillé et validé des objectifs issus de ces groupes lors d'un comité de pilotage.

De par la diversité des personnes consultées et la validation des Elus en présence de diverses institutions (IEN, DDCS, CAF), la méthode utilisée permet aux objectifs de notre PEDT de s'appliquer à toutes les structures recevant des mineurs sur notre commune. Bien sûr, tout en laissant à chaque acteur éducatif la possibilité de construire son propre projet.

Objectif général :

Etabli en concertation avec l'ensemble des acteurs concernés, le projet éducatif territorial constitue le socle de la mise en œuvre de la réforme des rythmes scolaires, ayant pour objectif la réussite scolaire et le bien-être des enfants.

Pour ce faire, la Commune d'Hendaye mobilise toutes les ressources pour garantir la continuité éducative entre, d'une part les projets des écoles et d'autre part les activités proposées aux enfants en dehors du temps scolaire ; les activités périscolaires s'inscrivent dans le prolongement du service public d'éducation et en complémentarité avec lui, et ce, dans un souci de cohérence et de qualité.

Aussi, cette continuité éducative ne peut pas être oubliée lors des temps extrascolaires. Le PEdT doit être l'outil pour que toutes les structures d'accueil hendayaises répondent à des objectifs communs.

LHParen helburuak herrian ditugun Tokiko Heziketa Kontratuaren, Haur eta Gazteria Kontratuaren eta heziketa proiektuaren helburuen arabera landu dira. Gisa horretan, plantan ezarri lantaldeak (gurasoak, irakasleak, animatzaileak, elkarteak eta beste hendaierak) bi kontratu horiei eta heziketa proiektuari begira aritu dira guztien helburuak birdefinitzeko. Gero, hautetsiek talde horiek eman dituzten helburuak gidaritzat bazorde batean birlandu dituzte.

Hainbat motatako pertsonak kontsultatu direlarik eta hautetsiek zenbait erakunderekin batera (HMI-IEN, GKDZ-DDCS, FaLK-CAF) balioztatu dituztelarik, erabili den metodoak aukera ematen du gure LHParen helburuak gure herrian adin txikikoak hartzen dituzten egitura guztietarako baliagarri izan daitezen. Betiere heziketaren eragile bakoitzak bere berariazko proiektua eraiki dezan utziz, noski.

Helburu nagusia:

Zerikusia duten eragile ororekin adostuz egin da lurraldeko heziketa proiektua eta eskola erritmoen erreformaren oinarria da, haurren eskolako arrakasta eta ongizatea helburu izanik.

Hori egiteko, Hendaia Herriko Etxeak baliabide guztiak erabiltzen ditu heziketa jarraikitasuna gerta dadin eskola proiektuen eta haurrei, eskolalditik at proposatzen zaizkien jardueren artean; eskolaldi inguruko jarduerak heziketako zerbitzu publikoaren jarraipen eta osagarri gisa ulertu behar da, koherentzia eta kalitatea helburu.

Beraz, heziketako jarraikitasun hori ezin da eskolaz kanpoko aldietan ahanzi. LHPa da Hendaia Herriko harrera egitura guztiak helburu beren alde ari daitezen behar den tresna.

Objectifs éducatifs de la Ville d'Hendaye :

De façon à ce que le projet éducatif territorial prenne tout son sens, il est nécessaire d'établir un partenariat entre les différents intervenants qui agissent auprès des enfants. Ce partenariat portera sur les valeurs et les acquis éducatifs à promouvoir au travers de toutes les actions, quel qu'en soit le cadre.

Suite au comité de pilotage du 21 mars 2017, nous avons redéfini les trois objectifs principaux :

1. L'appropriation par l'enfant des caractéristiques de notre territoire :

- En valorisant le trilinguisme tout en s'appuyant sur la spécificité de notre territoire
- En définissant la place des différentes langues parlées dans notre territoire
- En renforçant l'acquisition de la langue française pour les enfants bascophones et hispanophones
- En donnant la possibilité aux enfants francophones de pratiquer le basque et l'espagnol
- En favorisant la découverte du patrimoine que nous offre notre territoire
- En favorisant les échanges avec les communes limitrophes.

2. La socialisation de l'enfant :

- En basant notre action sur l'intérêt de l'enfant
- En emmenant l'enfant vers l'autonomie
- En incitant au respect
- En favorisant la prise de responsabilité de l'enfant
- En prônant la mixité sociale comme un élément moteur et structurant.
- En soutenant les enfants en situation de handicap
- En renforçant l'acquisition de la citoyenneté.

Hendaiaiko Herriaren heziketa helburuak:

Lurraldeko heziketa proiektu honek bere zentzu osoa beteko badu, partzuergo bat ezarri behar da haurrekin aritzen diren esku-hartzaile ororen artean. Partzuergo horrek ekintza orotan, ingurunea zeinahi delarik ere, sustatu beharko diren balore eta ezagutzak begiratuko ditu.

2017ko martxoaren 21eko gidaritza batzordearen ondorioz, honako hiru helburu nagusi hauek birdefinitu ditugu:

1. Haurra gure lurraldearen ezaugarrietaz jabe dadin:

- Hirueletasuna balioetsiz, gure lurraldearen berezitasunari begiratuz
- Gure lurraldean mintzo diren hizkuntzen lekua zehaztuz
- Euskaradun eta gazteleradun diren haurren frantsesaren ezagutza areagotuz
- Frantsesdun haurrei euskaraz eta gazteleraz mintzatzeko aukera eskainiz
- Gure lurraldeak eskaintzen digun ondarearen ezagutza bultzatuz
- Mugakide ditugun herriekiko harremanak lagunduz.

2. Haurraren gizarteratzea:

- Gure zeregina haurraren interesean oinarrituz
- Haurra autonomiarantz eramanez
- Errespetua sustatuz
- Haurraren erantzukizuna bultzatuz
- Gizartearen aniztasuna bultzatzaile eta egituratzaitzat hartuz.
- Ezintasunen bat duten haurrei laguntza emanez
- Herritartasunaren jabe egin daitezen bultzatuz.

3. La continuité éducative :

- En renforçant le lien entre les différents membres de la communauté éducative
- En assurant une continuité dans l'éducation avec l'ensemble des partenaires
- En ouvrant les lieux aux parents, aux associations
- En portant une attention particulière à la communication avec les parents.

Aussi, resteraient des objectifs secondaires qui seraient :

- La Citoyenneté :
 - Développer l'esprit civique des enfants et des jeunes.
 - Favoriser la rencontre, le partage, la solidarité, l'entraide.
 - Sensibiliser les jeunes à la lutte contre les discriminations et l'apprentissage de la tolérance face aux différences.
 - Favoriser l'appropriation de la ville, l'intégration sociale.
- L'épanouissement personnel :
 - Offrir des loisirs de qualité, diversifiés.
 - Respecter les rythmes de vie et les besoins de chacun.
 - Prévenir les conduites à risque.
 - Développer les prises d'initiatives, l'implication.
 - Favoriser des expérimentations auprès des enfants et des jeunes en lien avec leur développement, leurs questionnements et aspirations.
- L'identité locale :
 - Favoriser la connaissance tri-culturelle de notre territoire: langue, traditions, mythologie, musique...
 - Intégrer la dimension du bassin de vie « Txingudi » à l'identité hendayaise.

3. Heziketako jarraitutasuna:

- Heziketan parte hartzen duten ororen arteko lotura sendotuz
- Heziketan parte hartzen duten eragile ororen artean jarraitutasuna emanen dela bermatuz
- Lekuak gurasoei eta elkarteei irekiz
- Gurasoekiko harremanari kasu berezia eginez.

Hartara, honako bigarren mailako helburu hauek genituzke:

- Herritartasuna:
 - Haur eta gazteen sen zibikoa garatzea.
 - Topaketa, partekatzea, elkartasuna, elkar laguntza bultzatzea.
 - Gazteei bereizkeriaren aurka jokatzeko eta bestelakoak onartzen ikasten laguntzea.
 - Herria bere egin dezaten eta gizartera daitezen laguntzea.
- Norbanako gisa loratzea:
 - Kalitatezko josteta mota anitz eskaintzea.
 - Bakoitzak dituen bizi erritmoei eta beharrei kontu egitea.
 - Arriskua ekar dezaketen jokabideak saihestea.
 - Ekimena eta inplikatzeko garatzea.
 - Haur eta gazteen garapenera, dituzten galdera eta nahiei loturiko esperimentazioak bultzatzea.
- Tokiko nortasuna:
 - Gure lurraldeko hiru kulturen ezagutza bultzatzea: hizkuntza, tradizioak, mitologia, musika...
 - «Txingudi» bizi-eremua hendaiar nortasunaren barnera ekartzea.

- Les échanges entre les différentes générations :
 - Favoriser les rencontres intergénérationnelles afin de se connaître et se comprendre : grands-parents ou autres personnes.
 - Développer un partenariat entre les structures accueillant des enfants/jeunes et des services accueillant des personnes âgées.
- La protection de l'environnement et le développement durable :
 - Sensibiliser les enfants et leurs familles à la protection de l'environnement.
 - De même, les sensibiliser au développement durable : vivre ensemble, favoriser les circuits courts, l'économie solidaire et locale.
 - Mettre en place, au sein des structures, des pratiques de protection de l'environnement et de développement durable.

Effets attendus (connaissances, compétences, comportements, etc...) :

Les partenaires souhaitent que les objectifs du projet éducatif soient mis en œuvre et évalués en concertation.

Articulation du PEDT avec les éventuels dispositifs existants :

Les objectifs du PEDT ont eu pour source : le contrat éducatif local (CEL), le contrat enfance jeunesse (CEJ) et le projet éducatif existant dans notre commune.

Activités proposées dans le cadre du PEDT :

Il serait toujours souhaitable que ces activités soient en articulation avec les projets des écoles.

○ Belaunaldien arteko trukaketak:

- Belaunaldien arteko topaketak bultzatzea, elkar ezagutzeko eta elkar ulertzeko: aitatxi-amatxiak edo beste.
- Haurrak eta gazteak hartzen dituzten egituren eta adineko pertsonak hartzen dituzten zerbitzuen arteko partzuergoa garatzea.

○ Ingurumenaren babesa eta garapen iraunkorra:

- Haurrak eta beren familiak ingurumenaren babesaren garrantziaz ohartaraztea.
- Era berean, garapen iraunkorraren garrantziaz ohartaraztea: elkarbizitza, banaketa bide laburrak, elkartasunezko eta tokiko ekonomia laguntzea.
- Egituren barnean, ingurumenaren babeserako eta garapen iraunkorraren aldeko jokabideak antolatzea.

Espero diren ondorioak (ezagutzak, gaitasunak, jokabideak, etab...):

Heziketa proiektuaren helburuak elkar adituz gauza eta ebalua daitezen nahi dute partaideek.

Jadanik izan daitezkeen beste urraspideekin lotzea LHPa:

LHParen helburuen iturria honako hauek izan dira: Tokiko Heziketa Kontratua (THK-CEL), Haur eta Gazteria Kontratua (HGK-CEJ) eta herrian dugun heziketa proiektua.

LHParen barnean proposatzen diren jarduerak:

Jarduera horiek eskolen proiektuekin loturik izan daitezen komeni da.

A cette fin, il sera proposé au comité de pilotage de créer des groupes de travail entre partenaires de façon à réfléchir aux liens thématiques possibles entre les projets des écoles et les temps périscolaire et extrascolaire.

Par ailleurs, les activités seront, comme actuellement, organisées d'après un projet d'animation, en respectant une progressivité pédagogique.

Pour les projets des temps périscolaire et extrascolaire, le directeur de la structure veillera à ce que le projet pédagogique et les activités proposées aux enfants et jeunes soient recherchés, étudiés et proposés par les animateurs de son équipe. Il sera garant de la cohérence entre le projet pédagogique, le projet d'animation et le PEdT.

Les activités seront diverses : sportives, culturelles, artistiques, en lien avec notre environnement, notre patrimoine historique et la vie dans notre commune tout en faisant participer les groupes d'enfants et de jeunes aux événements locaux .

Les ateliers seront précisés par établissement, en tenant compte des besoins ou demandes formulées par les parents, les enfants et les professionnels (enseignants, animateurs...). Une attention particulière sera apportée à ce que les enfants en situation de handicap puissent être accueillis d'après les préconisations de la MDPH.

Aussi, l'enfant et le jeune auront le choix des activités tout en étant force de proposition pour l'organisation des différents temps de vie. Par ailleurs, leur participation aux bilans des actions sera valorisée.

De même, nous maintiendrons le droit de « ne rien faire » dans les structures.

Asmo horrekin, gidaritza batzordeari partaideen arteko lan taldeak sor ditzala proposatuko zaio, gogoeta egin dadin eskolen proiektuek dituzten gaien eta eskolaldi inguruko eta eskolaz kanpoko aldiek dituzten gaien artean izan litezkeen loturen gainean.

Bestalde, jarduerak, egun diren bezala, animazio proiektu baten arabera antolatuko dira eta pedagogian aitzin egiteko gisan.

Eskolaldi inguruko eta eskolaz kanpoko aldien proiektuetan, egituraren zuzendariak zainduko du hurrei eta gazteei proposatuko zaizkien jarduerak taldeko animatzaileek bilatu, aztertu eta proposatuak izan daitezzen. Pedagogia proiektuaren, animazio proiektuaren eta Lurraldeko Heziketa Proiektuaren arteko koherentziaren bermatzailea izanen da ere zuzendaria.

Hainbat motatako jarduerak eginen dira: kirol, kultura eta arte jarduerak, gure ingurumenarekin, gure historia ondarearekin eta gure herriko bizitzarekin loturik, eta haur eta gazte taldeak tokiko ekitaldietan parte hartzea eramanen dituzte.

Tailerrak ikastetxe bakoitzean zehaztuko dira, gurasoek, hurrek eta profesionalak (irakasleak, animatzaileak...) adierazi eskariak edo beharrak kontuan hartuz. Kasu berezia eginen zaio ezintasun bereziren bat duten haurrak hartu ahal izateari, MDPH erakundeak gomendatu bezala.

Beraz, hurrek eta gazteek jarduerak hautatzen ahalko dituzte eta bizitza aldiak antolatzeko proposamen egile ere izanen dira. Bestalde, jardueren bilanetan haiek parte hartzeari balioa emanen zaio.

Gisa berean, egituretan "ezer ez egiteko" eskubidea ere atxikiko dugu.

Afin d'approfondir la relation avec les familles, des accueils des parents, grands-parents et autres, continueront à être organisés sous différentes formes : pique-nique, portes ouvertes, ateliers partagés...

En outre, l'organisation de camps durant le temps extrascolaire sera utilisée en tant qu'outil pédagogique. A cette fin, l'équipe sera doublée de façon à organiser une veille durant la nuit.

Pour finir, des critères d'évaluation seront posés pour les projets menés lors de leur conception.

Le projet pédagogique des accueils de loisirs périscolaires du mercredi sera joint au PEDT en annexe I.

Partenaires du projet :

Partenaires institutionnels :

Nos partenaires institutionnels sont déjà acteurs dans notre projet au sein du comité de pilotage. Nous y trouvons : l'IEN, la DDSC, la CAF, l'Office Public de la Langue Basque, la Communauté d'Agglomération Pays Basque et des associations ayant une action auprès de l'enfance.

Partenaires associatifs :

En ce qui concerne les ressources humaines, nous faisons appel aux associations existantes dans notre commune, aux agents municipaux (services sports, culturel, éducation vie scolaire et animation), aux enseignants et à des prestataires de services.

Les équipements utilisés sont composés en grande partie par des bâtiments municipaux : écoles, accueils de loisirs, frontons, médiathèque, centre culturel... Ce sont des locaux de type ERP, suivis périodiquement par la commission de sécurité référente.

Acteurs responsables de la mise en œuvre des activités proposées dans le cadre du PEDT :

Les différents temps d'accueil font partie des accueils de loisirs périscolaires et extrascolaires existants.

Familiekin harreman sakonagoak ukan nahiz, jarraituko dugu guraso, aitatxi-amatxi eta bestelakoak hartzeko uneak antolatzen, molde zenbaitetan: pik-nik moldean, ateak zabal moldean, tailer partekatuen moldean...

Horrez gain, eskolaz kanpoko aldi kanpaldiak antolatuko dira pedagogia tresna gisa. Horien egiteko, taldea bikoiztu eta gaualdia antolatuko da.

Azkenik, egin diren proiektuak ebaluatzeko irizpideak ezarriko dira proiektuak asmatzerakoan.

Asteazkenetako eskolaldi inguruko aisialdi harreraren pedagogia proiektua Lurraldeko Heziketa Proiektuari atxikiko zaio, I. eranskin gisa.

Proiektuan partaide direnak:

Partaide diren erakundeak:

Partaide diren erakundeak proiektuaren eragile dira jadanik, gidaritza batzordearen barnean. Bertan, honako hauek ditugu: Hezkuntza Ministerioaren ikuskaria (IEN), Gizarte Kohesiorako Departamenduko Zuzendaritza (DDCS), FaLK-CAF, Euskararen Erakunde Publikoa, Euskal Hirigune Elkargoa eta hurrekin aritzen diren elkarteak.

Partaide diren elkarteak:

Giza baliabideei dagokienean, herrian ditugun elkarteengana jotzen dugu, herri langileengana (kirol, kultura, hezkuntza, eskola bizitza eta animazio zerbitzuak), irakasleengana eta zerbitzu emaleengana.

Gehien erabiltzen ditugun ekipamenduak herri eraikinak dira: eskolak, aisialdi zentroak, frontoiak, mediateka, kulturgunea... Herritarrei zabalduko eraikinak dira lokalak eta halako eraikinetarako segurtasun batzordeak begiratuko ditu aldi-aldi.

LHParen barnean proposatzen diren jarduerak gauatzeko ardura duten eragileak:

Harrera aldi guztiak jadanik badauden eskolaldi inguruko eta eskolaz kanpoko harreraren parte dira.

Ces structures sont gérées par des directeurs, ils sont donc responsables de l'organisation de ces temps d'activités dans leur globalité.

Structure de pilotage :

Le comité de pilotage est composé des représentants de la Commune (élus et services), des Services Départementaux de l'Education Nationale, de la Direction Départementale de la Cohésion Sociale, de la Caisse d'Allocations Familiales, de représentants des associations travaillant dans le secteur de l'enfance et deux membres de chaque groupe de travail. Il est chargé de coordonner l'ensemble de la démarche et de transmettre les préconisations au Maire à qui incombe les décisions in fine.

Coordination du projet assuré par :

Nom et prénom du responsable pédagogique : PERUARENA Eugénie
Fonction : Directrice de la direction « Vie dans la Cité »

Adresse : Commune d'Hendaye
Hôtel de Ville
Place de la République
64 700 HENDAYE

Téléphone : 05 59 48 30 51

Adresse électronique : saj@hendaye.com

Modalités de pilotage :

Les modalités de pilotage sont les mêmes que lors de la mise en place du projet.

Il est proposé d'organiser la réflexion et le travail de partenariat à travers un comité de pilotage qui s'appuiera sur des groupes de travail constitués au niveau de chaque groupe scolaire :

- **le comité de pilotage** (voir composition et finalité décrites précédemment).

Egitura horiek zuzendari baten gidaritzapean dira; jardunaldi horien antolaketa osoaren arduradun dira, beraz.

Gidaritza egitura:

Gidaritza batzordearen kideak honako hauek dira: Herriaren ordezkariak (hautetsiak eta zerbitzuak), Hezkuntza Ministerioaren Departamenduko Zerbitzuetaoak, Gizarte Kohesiorako Departamenduko Zuzendaritzaokoak, Familia Laguntza Kutxarenak, haurren alorrean aritzen diren elkarten ordezkariak eta lantalde bakoitzeko bi kide. Urraspide osoa koordinatzeko eta gomendioak auzapezari igortzeko ardura du, hark har ditzan azken erabakiak.

Proiektuaren koordinazioa honako honek du:

Pedagogia arduradunaren izen-deiturak: PERUARENA Eugénie

Funtzioa: "Hirian Bizi" Zuzendaritzaren sailburua

Helbidea: Hendaiko Herriko Etxea
Herriko Etxea
Errepublikak plaza
64 700 HENDAIA

Telefonoa: 05 59 48 30 51

Helbide elektronikoa: saj@hendaye.com

Gidaritza moduak:

Gidaritza moduak proiektua plantan ematean erabilitako berak dira.

Partaideen lana eta gogoeta eskola talde bakoitzean osatu lantaldeetan oinarrituko den gidaritza batzorde baten bidez antolatzea proposatzen da:

- **Gidaritza batzordea** (lehen aipatu osaera eta helburua ikus).

- **les groupes de travail** seront composés des représentants des co-éducateurs de terrain : parents, enseignants, services municipaux « Education - vie scolaire » et « Animation Enfance Jeunesse », associations et/ou personne concernée par ce sujet, comités de quartier, le cas échéant. Pour des questions d'efficacité, il est proposé de limiter le nombre de participants à 2 ou 3 représentants de chacune des catégories (parents, enseignants, animateurs...). Ils sont force de propositions et feront remonter leurs préconisations au comité de pilotage.

La coordination et le suivi technique de la démarche seront assurés par la Directrice de la direction « Vie de la Cité ».

Éléments prévus dans le bilan :

Périodicité : annuelle.

Indicateurs retenus (quantitatifs et qualitatifs) : des questionnaires seront mis en place afin que chaque partenaire et le public puissent évaluer l'action menée. Les retours spontanés des parents, des enfants et des professionnels seront pris en compte dans les évaluations.

Modalités de renouvellement du contrat et de modification par avenant :

Suite au bilan, le comité de pilotage proposera à Mr le Maire le renouvellement et/ou les modifications à apporter au PEDT.

Signataires du projet : Mr ECENARRO, Maire d'Hendaye

Fait à Hendaye, le 30 juillet 2018

- **lantaldeak** lekuetako hezitzaileen ordezkariak osatuko dituzte: aurasoek.

*Le Maire, Auzapeza,
1^{er} Vice-Président de l'Agglomération Pays Basque,
Euskal Hirigune Elkargoaren 1. Lehendakarioidea,
Conseiller Départemental des Pyrénées Atlantiques,
Pirinio Atlantikoetako Departamenduko kontseilaria,*

Kotte ECENARRO

kopurua kategoria bakoitzeko (guraso, irakasle, animatzaile...) gehienez bizpahiru ordezkariak osatu beharko litzateke. Proposamen egile dira eta beren gomendioak gidaritza batzordeari emanen dizkiote.

Urraspidearen koordinazioa eta jarraipena "Hirian Bizi" Zuzendaritzaren sailburuak egingen du.

Bilduman aurreikusi elementuak:

Maiztasuna: urtekoa.

Kontuan hartu adierazleak (kopuru nahiz kalitatezkoak): galdetegiak sortuko dira, eginikoa partaide bakoitzak eta publikoak balioets dezaten.

Gurasoek, haurrek eta profesionalak espontaneoki erranikoak kontuan hartuko dira ebaluazioetan.

Kontratua berritzeko eta gehigarri bitartez aldatzeko moduak:

Bildumaren ondorioz, gidaritza batzordeak auzapezari proposatuko dizkio LHPari egin beharreko aldaketak edota berriztapena.

Proiektuaren sinatzaileak: ECENARRO jauna, Hendaiaiko auzapeza

Hendaian egina, 2018ko uztailaren 30ean